



GOIERRITARRA



**Zeraingo
meategietan barrena**

Arg.: M. Albisu



GARMENDIA ERAIKUNTZAK



**Zurezko eta edozein
motako teilatuak**



**30 URTEKO
GARANTIA**

**AURREKONTUAK
NEURRIRA**

☎ **943 - 69 35 49**

📞 **929 - 46 95 26**

Herri Aurrerakoia Guztiontzat

Euskal hiritarroi geure etorkizuna erabakitzeko aukera emango digun esparru politikoa dugu helburu. **Elkarriketaren** bidez iritxiko den bakea eta adiskidetzea lortu behar ditugu.

Langabeziari aurre egingo dion lan banaketa duina da gure xedea.

Euskararen benetako indarberritzea da gure helmuga.

Euskal eredu sozialdemokrata da gure jomuga.

Alkartasuna eta bizitzeko egokitasun handiagoa izango dituen herria eraiki nahi dugu.

Berezko hezkuntz sistema integratzaile eta kalitatezkoa gauzatu behar da.

Ekonomi-esparru lehiakor eta berriztatzailea eskuratu behar dugu.

orain duzu aukera,

**EMAN
BOTOA**



**eusko
alkartasuna**



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Xanti Etxeberria, Maider Azur-
mendi, Saroi Jauregi, Iñaki Gu-
rrutxaga, Nekane Arruabarrena,
Andoni Sarriegi eta Iñaki Murua.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Ardiki Eguna Zaldibian,
urriaren 25ean**

Ardikia mahaian zenbat
eratera zerbitzatu daitekeen
erakutsiz, ardiki produktuak
promozionatzea da Zaldi-
biako Ardiki Egunaren hel-
buruetariko bat. Era berean,
artzantza beste ogibide bat
gehiago izan dadin lagunt-
zea ere nahiko lukete Ardi-
ki Egunaren antolatzaileek.

Urriaren 25ean izango da
aurtengo Ardiki Eguna. Bi
lehiaketa izango dira: Zal-
dibiko mondejuaren V.
lehiaketa irekia eta IV. Ara-
larko gazta lehiaketa.

Oinarriek diotenez, mon-
deju lehiaketan, mondeju
zuria egiten dakien edonork
har dezake parte. Urriaren
22a baino lehen eman behar
da izena 943160338 telefo-
nora deituz.

Gazta lehiaketan, ar-
tzantza lanbidea duten Ara-
larko artzaiek har dezakete
parte. Izen ematea urriaren

25ean bertan egin behar da,
goizeko 11etan, Resti pelo-
talekuan.

Ardiki Egunerako anto-
latutako egitaraua hauxe
duzue: goizeko 10,30etan,
tobera, trikitixa, txistula-
riak, albokalarriak eta dul-
tzaineroak; 11etan artisaut-
za erakusketa; goizean ze-
har ganadu erakusketa;
12etan, mondeju eta gazta
lehiaketen hasiera pelotale-
kuan, Agirre eta Egaña
bertsolariekin. Ondoren,
Aragoiko Echo herriko ba-
somutilen erakustaldia;
14:30ean, bazkaria, 2.000
pezetaren truke; bazkalon-
doren, bertsolariak eta triki-
tilariak.

Aurreko urteetako mon-
deju txapelketa irabazi du-
tenak hauek dira: Rosario
Mendizabal, Rosa Armen-
dariz, M. Cruz Aginagalde
eta iaz, Eñaut Hernandez
eta Aloña Jauregi.

BOTA BERTSOA



Alaitz Sarasola

Goierriko bertso-eskolako
ikaslea

Hauteskundeak

*Doinua: Iparragirre
abila dela..*

Urri hileko hogeitabostak
Horren data nabarmenak
Dagoeneko horien berri
Ondo dakigu gehienak
Politikoen hitzak,
Promes eta ekintzak
Nahiz eta izan ederrenak
Gero haizeak aguro asko
Eramaten ditu denak.

Aurrekoetan gertatutako
Kontuak hartuz eredu
Nik ondo dakit inor ez dela
Guk uste bezain aingeru.
Botuetan nahastuta
Betebeharrak ahaztuta
Euren postua seguru...
Eta hurrengo hauteskundetan
Berdin eskatuko degu.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Hil da gero...

Ez da gai beltza, edo ez litzateke behintzat izan behar, naturala eta, denoi iritsiko zaigunez, lasai hitz egin beharrekoa deritzot heriotzaren gaiari. Behar baino gutxiago agian, baina guk, lagunartean, hitz egiten dugunez heriotzaz, hor doaz, Erromako Zubia bailira, kolorez betetako nire hitzak.

Hiltzea oso garestia dela entzun dut. Garestia ekonomikoki esan nahi dut, sentimentalki ondo frogatua baitugu guztiok hala dela.


Bat-bateko heriotza "nahi" dugu, sufrimendurik gabea. Noiz, ordea?; ahal den beranduen, noski! Bixia da gaztaroa nola "luzatzen" dugun ikustea: 25 urtekoa "zaharra" da 12 urtekoarentzat, 40koa "zaharra" 25ekoarentzat, 50ekoa "gaztea" 60koarentzat, 70ekoa "oraindik gaztea" 80koarentzat... 25 urte besterik izan ez eta buruz eta pentsakeraz zaharkitua franko bada bazterretan! Aldiz, 70 urte beteak izan eta ideia aurreratu eta fresko askoak dituzten aitonamona "gazteak" ere ez ditugu urrutu.

Gaiari berriro helduz, sufrimendurik gabeko heriotza "aukeratzeaz" gain, gure lagunartean, gehienok, gorpua erraustearen alde agertzen gara: erraustu eta bizi garela gustokoa dugun bazterren batean hautsak zabaldu eta kitto.

Kitto, bai, ze modan dagoen harriokor grabatuak eta bestelako oroigarriak jartzea, hileritik kanpo, oso gaizki iruditzen zaigu. Niri, bizi naizela, Gaztelu gustatzen zaidala eta to! harria hantxe, hiltzen naizenean, nire oroigarri. Besteak Ñañarri, Txindoki zuela gustoko eta to! irudi panpoa hantxe, pasadizo handiko leku atsegin batean, han tokatzen den guztiak ondo ikus dezan. Halakok Igartzako parajeak maite zituela eta handik atera gabe ibiltzen zela bizi zenean eta bertan jarri gurutzea, harria, irudia edo dena delakoa...

Horrela jokatz gero, guztion artean berehalaxe bihurtuko dugu Aralar, Parke Natural ez, baizik eta hilerri.

Gertuko hildakoak maitteak ditugu eta jendearen bixta-bixtan ahal ditugun "funtzio" gehienak egiten



Aralarren aurki daitezken oroigarri ugarietatik batzuk.

saiatzen gara. Nori erakutsi nahi diogu ba ezer? Nori demonstratu nahi diogu hildakoari genion maitasuna eta bizitzen ari garen sufrimendua? Bizirik geratzen direnei eta oraindik jaio ez diren belaunaldi berriei? Zergatik? Zertarako?

Omenaldi xumea eginez zuhaitzak aldatzeak badu bere zentzua: naturaren onerako izango direlako, galdu den bizi baten orde best bati atea zabaltzen diogulako eta gehienentzat "zuhaitz bat gehiago" izango den bitartean, hildakoaren ingurukoentzat haren oroigarria ere izango delako. Noski, aldamenen grabatutako harriarik gabeko zuhaitzez ari naiz.

Garai bateko gure arbasoak hilobiratu behar zuten kide bakoitzeko trikuharri bat egiten hasi balira, zer ote litzateke gaur Aralar?

Harri, harkaitz eta irudiz betheriko museo handi bat (Guggenheim?)... Zorionez, trikuharri bakoitzean lagun asko hilobiratu zituzten, ordea. Haiek bixkorrak!, haiek errespetatu natura eta errespetatu hildakoak!

Erraustea oso garestia omen da, baina hiltzean horixe nahi genukeenok itsulapikoan txanponak sartu eta aurrezten hasi beharko dugu. (Hori ez al dugu oportetara joateko egin orain arte?) Eta kristautasunaren erritua, hileta batez ere, garestia izateaz gain, bizirik jarraitzen duenarentzat torturazaila dela iruditzen zaidanez, bizirik gauden bitartean esan beharko dugu hiltzean agur-jai xume eta polit bat egitea nahikoa dugula. Hala biz!

Joxepa Madariaga
(Lazkao)

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

ARRIETA

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

JATETXEA

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



☎ 943 88 55 00

ORDIZIA

TXANDAKA

Behar denean behar da eta kitto!

Ikasturte hasieran betiko arazoan aurrean gertatuko gara aurrean ere gurasook, hau da, arratsaldeak libre dituen nerabe horrekin zer egin. Geu lanean ari garen bitartean nola okupatu bere denbora *aprobetxa* dezan. Arazorik ez dagoen tokian bila ez hastea hoberena, baina, ikasketetan larri dabilenarekin edo beti ikasten hastekotan dagoenarekin zer?

Askotan, ohituraz edo, betikoa egingo dugu: partikularra bidali eta kitto! Zein gai ikasi behar duen ez zaio axola; denak ematen dituen bat aurkitzen saiatu eta ez balego, betikoak ikas ditzala: matematika, teknologia, fisika, ekonomia, informatika...

Zer esatea nahi duzue; nik uste, denok maite dugula denbora libre eta, bakoitzak ikasi behar duela bere denbora libre antolatzen. Beraz, goian aipatutako erabakia ez nuke sekula ohituraz hartuko, premiaren arabera baizik. Gainera, on egin beharrean kalte egiten ari gaitzke, hau da, norberak berekasa zailtasunei aurre eginez gainditu beharreko oztopoak beste baten laguntzaz bideratzen. Horrela ez da zailtasunik benetan ikusten eta, bestalde, arazoan eta zailtasunen aurrean beste baten laguntzaren zain geratzeko joera bultzatzen ari gaitzke. Izan ere, sarritan, nerabeak berak bakarrik egin ahal duen lan egiteko partikularra ordaintzen ari gara gero, klasera joandakoan, besteei begira egoteko.

Bai, eta notetan *ongi* dabilena (ez ikasketetan) eta arratsalde osoa sofán telebista ikusten egoten denarekin zer? Ba, aukera bat izan daiteke telebista saltzea edo sofán puntapaxak jartzea edo... nonbait apuntatzea. Baina nire gomendioa pentsatzen lagunduko dion zerbaitetan hastea da; sormenarekin lotura duen zereginen bat, adibidez bertso eskola, antzerkia... Burua fresko edukitzea oso ona da eskolarako eta, behar denean behar da eta kitto!

Iñaki Murua



Gripearen aurkako txertorik hartzen al duzu?



Joxe Urbizu
71 urte, erretiratua
segurarra

Ez, eta ez dut hartuko. Normalean ez naiz gaixotzen eta purua egunero erretzen dut. Ez noa lardatzen hastera.

Pedro Galarza
78 urte, erretiratua
segurarra

Bai. Urtero hartzen dut. 78 urte edukiz gero zerbait egin behar. Aspal-ditxo ez dut katarrorik harrapatu.



Pakita Otegi
77 urte, erretiratua
segurarra

Bai, aurrean ere hartu dut. Urtean katarrorik bat izaten dut, baina badaezpada ere hartu egiten dut.

TAROT
Gixane

☎ 948 - 46 87 27
ALTSASU

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92


Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ZINEA



GOIENIZ:

Urriak 22, 'Todos os lla-mais Mohamed' labur-metraia eta 'Un verano en la Goulette', 21:00etan, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

'Siete dias y siete no-ches'. Ostirala 16: 22:15; larunbata 17: 19:30 - 22:15; igandea 18: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 19: 19:30.

'Paulie el loro boca-zas'. Igandea 25: 16:45

'Salvar al soldado Ryan'. Ostirala 23: 22:15; larunbata 24: 19:00 - 22:15; igandea 25: 19:00 - 22:15; astelehena 26: 19:30.

BEASAIN:

'City of angels'. Ostira-la 16: 22:15; larunbata 17: 19:30 - 22:15; igandea 18: 19:30 - 22:15; astelehena 19: 19:30.

'Un verano en la Goulette'

Ferid Boughedir
(Frantzia-Tunisia, 1996)

Ferid Boughedir zuzen-dari tunisiarraren biga-rren lanean arrazismoa-ren gaia jorratzen da, bes-teak beste, baina ohiko gehiegikeria eta topiko astunak baztertuz. Izan ere, komedia kutsuz kon-tatzen dizkigu erlijio des-berdinetako hiru familia-ren arteko gora-beherak, frantziar kostaldeko herri txiki batean.

Kontakizunean bi ar-datx nagusi bereizten di-ra. Batetik, hiru familia buruen arteko adiskideta-suna, musulmana, frant-ses jatorriko judua eta kristaua, hain zuzen ere. Bestetik beren alaba gaz-tetxoak daude, haien ha-rremanak finkatu eta se-xualitatean murgildu nahian. Belaunaldi arteko gatazka berehala agertu-ko da, uda horretan muti-letan hasteko asmoz fede eta arraza ezberdinetako lagunak aukeratzen dituz-tenean. Helduen ustezko irekitasuna kolokan dago jada.

Istorio atsegina, gizar-te arazoak eta konprom-ezua ikuslea aspertu gabe ager daitezkeela adieraz-ten duen horietakoa.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Urriak 20, Julian Auz-mendi Matxainek, 'Artzan-tza urtaroen' bilduma aur-kezteko du, Udaletxeko Ba-tzar aretoa, 19:00etan.

Urriak 23, Erramun Oiartzabalen 'Dominika 96' diapositiba bilduma, 20:00etan, Aizkorri Mendi-zale elkarte.

LAZKAO:

Urriak 21, 'Tibet eta Bu-dismo Tibetarra' bideoa, Manoli Barrenetxearen es-kutik, 21:00etan, Maizpi-den.

Urriak 28, 'Gipuzkoako festak: Udazkeneko eta Ne-gu haserako festak' diapo-rama, 21:00etan, Maizpi-den.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 16tik 25era, Noemi Barandiaranen pin-tura eta eskultura erakuske-ta, Usurbe Antzokiko era-kusketa-aretoan.

ORDIZIA:

Urriaren 16ra arte, Mo-hamed Anzaoui eta Mouad Yebaireren pintura erakuske-ta, Barrenan.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Urriak 28, Kontu kontari saioa, Arrate Leunda ipuin kontalariaren eskutik, Kul-tur etxeko liburutegian, 18:30ean.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Urriaren 19tik aurrera, 'Benjamin mailako kirol-monitorentzat ikastaroa' Euskara-kirola programa-ren barruan. Informazioa Antzizar kiroldegian.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 18: Nafarroa Oi-nezera, Zangozara.

Urriak 25: Arri-Kilinka (955 m.).

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 18: Euskadiko beteranoen ibilaldia.

Urriak 25: Gipuzkoako beteranoen ibilaldia.

Idiazabalgo mendizaleak:

Urriak 18: Idiazabalgo mugaren ibilaldia.

Urriak 25: Orbaizeta-Urkulu-Abodi-Orhi.



AUSO EGI

Urdaneta, 41

C-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



'Emakumeak eta osasuna' topaketak Ordizian

Ordiziako Udaleko Ongizate Sailak antolatu ditu topaketak, urritik abendura bitartean, Barrenan, 15:30ean. Irekiak dira hitzaldiak eta doanekoak. Informazioa, 943888250 telefonoan. Lehenengo hiru hitzaldiak:

● **Urriak 20, asteartea:** 'Emakumeen osasuna eta Ongizatea' Rosa Rico sendagilearen eskutik.

● **Urriak 27, astea- tea:** 'Bularreko minbiziari nola hartu aurrea', Jone Alzibarren (bularretako minbizia garaiz harrapatzeko programakoa) eskutik.

● **Urriak 29, osteguna:** 'Menopausia: ezagutzea eta aldaketei aurre egitea', Garbiñe Sarriugarte ginekologoaren eskutik.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

□ Ehizeko 2 txakur salgai (erbi txakurak dira). 943 886521.

□ Oso gutxi erabilitako 2 metroko tresiloa salgai. Deitu 943 889687 telefonora, 20:00etatik 23:00etara.

□ Pianozko eskusoinua salgai. Prezio interesgarria. Deitu 943 180426 telefonora, gauez.

□ Diskoak, singelak eta LPak erosten ditut. 943 526577.

□ Arroiletako Neoprenozko trajea (bikoitza) salgai. 4 taila. Eskarpinak, eskularruak eta ur azpiko botak. 943 160160 edo 989 412266.

□ Klarinetea jotzen ikasten hasi naiz. Norbaitek berea utzita eta salgai badi, hitz egin genezake. 943 652207. 20:00etatik 22:00etara deitu.

Etxebizitzak:

□ Zegaman pisua salgai, berogailu zentralarekin. Ana. 943 593478.

□ Pisua salgai Ordizian. 88 m². 943 88 54 63 Mikel edo Elena.

□ Pertsona bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Maider, 943 883880. Amagoia, 943 885287.

□ Bi pertsona behar dira Bilboko San Inazio auzoan pisua osatzeko. 943 771377.

□ Pertsona baten bila nabil Ordizian pisu bat konpartitzeko. 943 881119. Arantza.

Lana:

□ 24 urteko neska, etxe-ko lanak eta beste edozein lan egiteko prest. 909 491062.

IRAILAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Mundua gizonarentzat...**
Joxean Artze (Zubi zurubi)
- 2- **Gure barria 1975**
Xabier Mendiguren (Elkarlanean)
- 3- **Ez zaigu ahaztu**
Alberto Barandiaran (Susa)
- 4- **Lehen amodioa Suedian**
Joxemari Iturralde (Ibaizabal)
- 5- **Sorginkerien liburua**
Aingeru Epaltza (Pamiela)

DISKOAK:

- 1- **Ruper Ordorika**
'Dabilen harria' (Nuevos Medios)
- 2- **Flitter**
'La vida ke cotxina es' (Mil a Gritos)
- 3- **Kepa Junkera**
'Bilbao 00:00 h' (Resistencia)
- 4- **Etzakit**
'Etzakit' (Elkar)
- 5- **F. Muguruza + Dut**
'Ireki ateak' (Esan Ozenki)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Urriak 17-18: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943882628.

Urriak 24-25: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain. 943880152.

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g

☎ 943 88 05 43 BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Lehen hezkuntza
- ✓ DBH, LOGSE
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Aprestazio arazoak

☎ 943 160 120

Joan Iturrialde, 5

BEASAIN

Azken aldi honetan, Goierriko Lanbide Eskolan Injinerutza Teknikoa ikasteko ikasketak jartzeko asmoak eta aipamenak ugaltzen ari dira. Horrek eskualdearentzat abantaila handia ekarriko luke noski, baina oinarritzko planteamendua egiten den eraren arabera, emaitza hobeak ala okerragoak izan ditzake Goierri gehiago euskalduntzeko ala erdalunago bihurtzeko.

Duela 30 urte inguru, 1968-69 ikasurtean oker ez banago, Injinerutza Teknikoa ikasteko ikasketak hasi ziren Goierriko Lanbide Eskolan mekanika eta elektrizitate espezialitateetan. Garai hartan, frogia hartan esku hartzeko aukera izan nuen eskolak emanek. Bi ikasurte iraun zuen frogak, baina gero ez zuen jarraipenik izan. Arrazoiak anitz noski, baina ez txikiengatik garai hartako enpresarietako proiektuak behar bezala ez bultzatu eta lagundu izana. Esan beharra dago, frogia hura espainiera hutsean izan zela, garai hartako irakaskuntza-eredu bakanari jarraiki.

Goierri eskualdeak horrekin, aukera handia galdu zuen eta 30 urte igaro behar izan dute osterako horretaz pentsatzen hasteko. Eskualdearen garapenerako garrantzi izugarria du noski maila ertaineko karrera bat bertan irakasteak. Gainera, lehendabizi bat izan ohi da eta gero beste batzuek atzetik etor daitezke. Hobe litzateke noski ikasle guztiak unibertsitateko campusetan artalde moduan pilotzen jarraitu ordez, Euskal Herrian zehar eskualdeka maila horretako eta beste batzuetako hainbat ikastetxe sortzen joatea, baina utz dezadan gai hori gaurko bere horretan. Egia esan, garai haietatik hona maila ertaineko karrerarekin aurrera egin dutenek (Arrasate dugu adibiderik onena), garapena eta maila lortzeaz gainera, begiratu besterik ez dago noraino heldu diren: beren unibertsitatea antolatzeraino! Beraz, argi eta garbi dago ideia oso onuragarria eta bultzatu beharrekoa dela.

Alabaina, Injinerutza Eskola horren ildo nagusiak marratu behar dituztenen gainetik erabakien agintea duten politikoei, ez dut uste ikastetxe horrek behar litzukeen hizkuntza ezaugarriak batere garbi dituztenik eta hau esateko bi adibide jarriko ditut. Beasainen 1998-07-30ean Udalak egindako Osoko Bilkuran

Injinerutza teknikoa Goierri (I)

azaldutako bi iritziren arabera behintzat, Injinerutza Teknikoa euskaraz irakasteko ez da asmo handirik ikusten gaur egun agintean direnen aldetik. Jon Jauregi Alkate jn.ak (EAJ) esana da honako hau hitzez hitz: *"Respecto del euskera, parece lógico pensar que los alumnos no sólo van a ser pertenecientes a la Comunidad Autónoma del País Vasco, sino también van a provenir de otras comunidades autónomas y también del extranjero e incluso puede darse la circunstancia de que algunas asignaturas no se puedan impartir ni en euskera ni en castellano, sino en alemán o en inglés."*

Eta beste honako hau Jose Luis Elortza jaunak (PSE-EE) esana: *"Euskararen arazoak ez du lehentasunik. Adibide gisa esan liteke, Holandan goi-mailako ikasketak ingelesez ematen direla, Mondragoiko ingenieritza eskolako ikasle asko kanpora joaten dira tesia egitera. Beraz, nik uste dut Europako zentro batzuekin lotura izan behar dugula."*

Alkate jn.aren arabera, hasteko, Eskola hori ez litzateke goierritarrentzat eta euskalerritarrentzat pentsatua izango, auskalo nondik datozkeenentzat baizik. Ez da asmo ona etxekoen aurretik atzeritarrek jarrita eskola eraikitzea. Lehenik eta behin etxekoentzat egin beharko da egitekotan eta gero etorri nahi luketenentzat. Gainera, kanpotik letorkeena egokitu beharko luke hona eta ez alderantziz. Guk behintzat, kanpora goazenean, beti hango erara egokitu behar izaten dugu eta hori kanpokoek ere, hona datozenean, egin beharrekoa dela uste dut. Hori da lege naturala eta ez alderantzizkoa. Euskal Herriko Kataluniako unibertsitateetara doazenen katalana ikasi behar izaten dute eta hori oso ondo dakite goierritar gazteek. Beraz, logikoa, edonondik datorrenak euskara ikastea litzateke eta ez besterik. Dirudienez, gure Alkate jn.ak alderantzituta ditu printzipio naturalak.

Hizkuntzari dagokionez berriz, sofisma baino ez da Alkate jn.ak esana. Gauza bat da gai bereziren bat, hitzaldiren bat edo ikastaroren bat, inoiz edo behin, edo adarren batean nahiz batzuetan, ingelesez edo alemanez ematea eta beste bat Eskolako hizkuntza alemana edo ingelesa izatea. Gaur egun euskararik ez erabiltzeko eta orain arte bezala espainieraz jarraitzeko erabiltzen da beste hizkuntzen aitzakia eta trikimailu hori. Hori esaten dutenek ez dute normalean ingelesez eta alemanez egiten, espainieraz baizik.

Elortzak esanari ere antzeko erantzuna eman beharra dago. Holandan, ingelesa asko eta ondo ikasten duten arren, gai berezi eta nazioarteko harremanetakoak kenduta, Ikastetxe Tekniko gehienetako hizkuntza printzipioz nederlandera da, ingelesez ari diren ikastetxe batzuek ere, atzeritarrekin batera aritzeko batez ere, badauden arren. Gero, komeni zaienetan ingelesa edo alemana erabiltzen dute gauza berezietan (espainiera ez behintzat), baina arrunki eta lehenetsuenez nederlandera Jose Luis.

Arrasatetik kanpora, Injinerutza Teknikoa egin eta Goi-mailako Injinerutza egitera edota Goi-mailakoa ere Arrasaten egin eta masterren bat edo doktordutza egitera joaten dira. Etxean badut halakorik eta badakit horren berri. Joaten direnek argi eta garbi dute, joatekotan, doazen lekuko hizkuntzan aritu behar dutela, hori da eta lege naturala. Horrek ez du inolako zerikusirik espainierarekin, izan ere, doazen guzti-guztiei, horretarako behar duten kanpoko hizkuntza, akademiaren ikasten baitute ahal dutenean ikastaro trinkoak eginez eta ez Eskola Politeknikoan. Beraz, hemen espainieraz ikasteak ez dakarkie inolako abantailarik horretarako, eta aldiz, kanpoko hizkuntzak ikasiz gero, hemen euskaraz ikasteak, hizkuntza tekniko horietako kontsultak egitera ere behartzen ditu eta hemen espainiera hutsez bakarrik ikasten dutenak baino askoz ere trebatuagoak ateratzen dira eleantuntun moduan.

Andoni Sarriegi Eskisabel
(Injineru Teknikoa)

Hizkuntza Plangintzan Diplomatu
Liburu teknikoan egile eta itzultzailea)

ERREZETA



Lurdes Erauskin
Altzagarate jatetxea
Altzaga

ONDDO ETA GANBAZ BETERIKO HOJALDREAK

Tartera batean hostopil edo hojaldre geruza bat jarri. Kazo batean gurin piska bat jarri, 12 ganba fresko zuritu eta mantekiletan gorritu minutu erdi batean-edo, esnegain piska bat nahastu. Onddoak (aurretik eginak) eta egindako tomate goilarakada bat nahastu eta hojaldrearen gainean zabaldu. Beste hostopil geruza bat gainean jarri eta aldamenetatik eskuekin piska bat bildu. Arraultza gorringoa irabiatu eta brotxa batekin gainean igurtzi. Labean sartu 180° inguruan, ordu laurden bat. Epela zerbitzatu.



Nekane Arruabarrena
Luberri loradenda

Etxe barruan erabiltzen ditugun landare gehienak tropiko inguruetan dute beren jatorria. Hemen, ez ditugu hango tenperatura, argia eta hezetasuna. Horregatik landareak ondo zaintzeko aholku batzuk jarraitzea beharrezkoa da.

Ureztapena

Landare gehienek elikadura lorontzian dagoen urari esker sortzen da. Beraz, ureztatzen ez den landarea poliki-poliki galtzen joango da.

Gehienetan, etxe barruan hiltzen diren landareak ur gehiegi dutelako galtzen dira, zainak usteltzen direlako.

- Landare gutxi batzuk lurra beti bustia behar dute.
- Ezin da lorontziko lurra

AHOLKUA

Etxe-barruko landareen zainketa

erabat lehortzen utzi.

- Lorontziaren azpiko zu-loak beti garbi egon behar dira, soberan dagoen urak alde egin dezan.
- Lorontzia plater baten gainean badago, ureztatu ondoren 10-15 bat minutu plateran dagoen soberako ura kendu.
- Ez erabili kanileko ura zuzenean ureztatzeko, beti ingurugiro tenperaturaraino epeldu ondoren.
- Landarea ur premian dagoen ala ez jakiteko era onena, behatza lurrean sartzea da.

Argia

Landareek argia behar beharrezkoa dute hazteko eta ondo bizitzeko, landareen kokalekua ahal den argitsuena izatea garrantzitsua da.

Leiho inguruetan jarri landareak, ez eguzkia zuzenean hartzeko moduan.

Temperatura

Temperatura epelak behar dituzte, egunez 25°C ingurukoak eta gauez 10°C in-

gurukoak. Tenperaturaren gora-behera azkarrik oso kaltegarriak izaten dira landareentzat.

Aireztapena

Aire freskoa hartzea beharrezkoa dute. Baina sekula ez aire-korronteak eragiteko atea eta leihoa biak batera irekitzea.

Hezetasuna

Landare gehienak %50-eko hezetasunarekin ondo biziko dira. Hezetasun hau lortzeko era asko daude:

- Lorontziaren azpian, ontzi zabal batean, hartxintxarrak ipini eta tartean ura jartzea.
- Ihinztigailu batez hostoak bustitzea, ahal baldin bada euri-urarekin.

Ongarriketa

Hosto eta loredun landare arruntetan martxoa-urria bitartean eta neguko loraldia dutenetan neguan zehar. Landarearen atsedenaldiran ongarririketa ez dugu egingo.

Garbitasuna

Landarea garbitzea uste baino garrantzitsuagoa da. Hautsa oso kaltegarria da.



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15



VIA

Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Etxegarateko bikoizketa onartuta

Gipuzkoako Diputazioak onartu du Etxegarate bikoizteko azkeneko fasea. Datorren udaberrian hasiko omen dira lanak. Idiazabalgo kronikan duzue informazio gehiago.

Andoni Urrestarazu

Bisitak izaten dituzten kabinetak kristalak garbitzeko eskatzeagatik, 147 aste-buru isolaturik egoteko zigorra jarri diote ordiziarri. Herrera de la Manchako kartzelan dago Andoni Urrestarazu.

3 hildako auto istripuan

Irailaren 29an, Andoaingo izan zen errepide istripuan hiru goierritar hil ziren. Donostiako norabidean zihoan kamioi batek, Goierri alde-za zetozen hiru auto harra-patu zituen. Bi autoetan Juanita Amundarain eta Jon Mirena Mendizabal itsa-sondoar senar-emazteak eta hiru hilabeteko Nerea Ez-peleta beasaindarra eta bere gurasoak zihoazen. Momentuan hil ziren Juanita eta Jon Mirena. Nerea hau-rra, egun batzuk UBIn egin eta urriaren 3an hil zen.

Ustezko hiltzaileak atxiloturik

Orain urtebete Ikaztegieta-ko gasolindegian lanean ari zela hil zuten Izaskun Lar-rauri legorritarraren ustez-



Irizarren inaugurazioa

Urriaren 14an inauguratu ziren Ormaiztegi-ko Irizar koope-ratibaren instalazio berriak. Ale hau inprentan zegoela izan zen inaugurazioa eta datorren aldizkarian izango duzue in-formazio eta datu gehiago. Jose Antonio Ardanza lehenda-karia bertan izatea aurrikusita zegoen. Argazkian, azken ikutuak egiten.



'Euskal Herriaren baketze eta normalizaziorako proposamenak' mahaingurua Beasainen

Topagune eta Elkarriketarako Goierriko Ekimena taldeak antolaturik, 'Euskal Herriaren baketze eta normalizaziora-ko proposamenak' mahaingurua izan zen Beasainen. Jose Luis Elorza (PSE-EE), Juan Mari Juaristi (EAJ), Jon Goi-koetxea (EA), Tomas Goikoetxea (IU-EB) eta Mikel Korta (EH) izan ziren hizlariak. Moderatzailea Patxi Meabe.

ko hiltzaileak atxilotu ditu Ertzaintzak. Hiru gazte dira atxilotuak, 19 eta 22 urte-

koak: JA.G.A. inzialduna Lazkaon, Pm.R.G. Zuma-rragan eta A.B.A. Iruñean

atxilotu zituzten. Ustezko hiltzaile hauei hainbat lapu-rrera egitea leporatzen die Ertzaintzak.

Ikastaroa: 'Denda berria'

Ordiziako 'Merkataritza Aholkularitza Teknikoaren Gabinetea'-k urriaren 20ra-ko 'Denda berria: establezi-mendu bat irekitzeko gogo-etak' izeneko jardunaldia antolatu du. Denda berria ireki nahi dutenei zuzendu-ta dagoen jardunaldi hone-tan bete behar diren pauso-ak eta kontutan eduki behar diren beste alde batzuei bu-ruz hitz egingo da. Informa-zio gehiago nahi izanez ge-ro, deitu 953 160673 telefo-nora.

Aitor Esnaola

Legorretar aizkolariak 3. mailako Euskadiko txapel-keta irabazi zuen. Urriaren 12an Basaurin lortu zuen txapelak 2. mailan lehiatze-ko aukera ematen dio.

Lau t'erdiko txapelketa

Alustiza, Imaz eta Mendia pelotariak lau t'erdiko txapelketan dira. Mendiak lehen partidua Oregi III-ari 22-15 irabazi ondoren, urriaren 25ean Berasaluze VIIaren aurka jokatu du. Imazek Errandonea II-Tira-pu partiduko garailearen aurka jokatu du. Alusti-za, berriz, azaroaren erdi-rarte ez da txapelketan sar-tuko.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI



inausti
KARROZERIA


N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

Ibilbide tematikoa Ormaiztegiko trenzubiaren inguruan

Ormaiztegiko Udalak, Zumalakarregi museoaren laguntzaz, Euskal Herriko XIX. mendeko burdinezko obrarik ederrenetako bat den trenzubiaren garrantzia nabarmen jarri eta zabaltzeko programa prestatu du. Programa honek ekintza desberdinak bildu ditu: trenzubi gauez ere miresteko aukera ematen duen argikuntza monumentala; zubi azpian bertan, historia eta

bilakaera azaltzeko informazio panelak; proposamen didaktikoak dituen informazio dossier baten argitalpena eta bisitaldi gidatuak eskolaume, familia, turista eta bestelako taldeentzat.

Trenzubi honek 289 metro luze eta 34 metro garai-ko sakana zeharkatzen du. 18.000 tona burdin ditu lau pilare gainean. Dena den, harrigarriena lurpean omen dago. Zimentazioa eta inda-



rraren kalkuluarengatik da zubi hau beste asko baino interesgarriagoa. Alexander Lavalley ingeniariak, Gustave Eiffelen aurrekoak, eraikin zabal, eroso, arin eta

oso segurua diseinatu zuen, sekulako maisulana, burdina eraikuntzan erabiltzea ausarta eta berritzailea baitzen, benetan iraultzailea.

Zure ametsetakoa bidaia, GOIERRITARRA aldizkariaren eskutik

GOIERRITARRA aldizkaria launduz, zure ametsetakoa bidaia egiteko aukera izango duzue datorren urteko irailaren 30ra arte. Australia, Vietnam, Argentina, Estatu Batuak, Eskozia, Thailandia, Kanada, Kuba, Nepal, Egipto... Nor ez da inoiz jarri pentsatzen, dirua edukiz gero nora egingo lukeen ametsetakoa bidaia!

Bada, oraintxe duzue aukera! Nahi duzuenean, nahi duzenarekin, nahi duzuen lekura joateko aukera izango duzue. 300.000 pezetakoa izango duzue zain eta Beasaingo Urola bidai agentziaren bidez bideratuko da bidaia. Horretarako, 200 pezetako errifak erosi besterik ez duzu. Goierriko honako leku hauetan daude salgai. Abenduaren 21ean, Notaria aurrean egingo da zozketa. Eskerrik asko eta zorte on!



- ✓ **Altzagan:** Olagi sagardotegian eta Altzagarate jatetxean.
- ✓ **Araman:** Toki-Alai jatetxean.
- ✓ **Ataunen:** Troskaeta tabernan eta San Martingo okindegian.
- ✓ **Beasainen:** Anzizar tabernan eta Bideluze plazako kioskoan.
- ✓ **Ezkio-Itsason:** Mandubiko Bentan eta Itsasoko Ostatuan.
- ✓ **Gabirian:** Ostatuan.
- ✓ **Idiazabalen:** Xume tabernan eta okindegian.
- ✓ **Itsasondon:** Ibarre tabernan.
- ✓ **Lazkaon:** Gerriko tabernan eta

Gerriko liburudendan.

- ✓ **Legorretan:** Olaso tabernan.
- ✓ **Mutiloan:** Ostatuan eta Lierniko Mujika jatetxean.
- ✓ **Ordizian:** Pottoka, Eroski eta Majori kiroldegiko tabernetan, Foto Sistema argazkidendan eta GOIERRITARRAren bulegoan.
- ✓ **Ormaiztegin:** Arantxa tabernan eta Estanko janaridendan.
- ✓ **Seguran:** Imaz tabernan.
- ✓ **Zaldibian:** Goiagi okindegian.
- ✓ **Zegaman:** Txantone tabernan.
- ✓ **Zerainen:** Mandioa tabernan.

Gipuzkoako artisau azoka asteburuan Ordizian

Gabiltza', Gipuzkoako Artisauen Biltzarrak antolaturik, artisauen azoka eta ihardunaldiak izango dira Ordizian, gaur, urriak 16 hasi, eta igandera arte. Produktuak erakusgai eta salgai jartzeaz gain, artisauak dituzten arazorik handienak aztertuko dituzte. Azoka Majori kiroldegian izango da. Aurtengoa lehenengo edizioa da, eta hurrengo urteetan ere errepikatzeak asmoa dute antolatzaileek.

Ordizian erabaki dute I. Gipuzkoako Artisauen azoka antolatzea. Ordiziak azokak antolatzeko duen esperientzia aprobatxatu nahi izan dute Gipuzkoako artisauak, Edorta Muruak adierazi digunez. "Egoistaki jokatu dugu, Ordiziak azokak antolatzen esperientzia handia baitauka. Kiroldegia ere askotan erabiltzen dute horrelako azoketarako eta guk beharrezkoa genuen azoka leku itxi batean egitea, hiru egunetan egunero gauzak jarri eta ipini ibili gabe. Goierrin ere artisauak baditugu, agian beste herri batzuetan baino gehiago. Ordiziako Udala-rekin ere badugu harremana, urtean egiten diren pare



bat azoka berezietan parte hartzen dugulako".

23 lagunek osatzen dute 'Gabiltza' elkarteak. 1996an sortu zen eta Gipuzkoako artisauak biltzen dira bertan. "Artisauak oso indibidualistak dira. Bakoitzak bere bidea darama eta oso zaila da gu elkartzea. Eta ikusten genuen orain bezalako azoka bat antolatzea ezinezkoa litzatekeela elkarterik gabe. Aldundiak ere laguntzak ematen ditu, baina ez artisau indibidual bati, legalizatutako taldeari baizik. Bestetik ikusten genuen arazo asko genituela azoketara joateko. Orain erraza da oso, elkartearekin harremanetan jarri eta azoketara joatea. Beste bide batzuk irekitzen ari gara", dio Edorta Muruak.

Hitzaldiak

Artisauen arazorik handienak, produktuak nola komertzializatu eta legedi aldekoak dira. Ildo horretatik,

hiru hitzaldi antolatu dituzte Barren Kultur etxean.

Batetik, 'Produktuen erakusketa eta eskaparatismoa' hitzaldia izango da. Eskaparatista batek produktuak nola saldu azalduko diote. Bestetik, 'Artisautza eta legedia'. "Artisau asko ilegalki gaude eta legalki egoteko hilean 30.000 pezeta ordaindu behar dira. Badi-ra bat baino gehiago neguko hilabeteetan diru hori ateratzen baldin badute oso gustora daudena. Lege aldetik badago borroka bat, artisauak, nekazariak eta arrantzaleak bezala kontuan hartzeko. Horiek laguntza handiak dituzte zergetan eta horiekin parekatzeko nahian gabiltza". Eta azkenik, 'Artisautza eta informatika' gaia landuko da, "orain Internetekin gauza asko egiten baitira saltzeko". Antolatzaileek esan digutenez, lehenengo bi hitzaldiek arrakasta handia izan dute.

Azoka

Azoka urriaren 16an, arratsaldeko 5etan inauguratuko da. Arratsaldeetan 8,30ak arte egongo da zabalik eta 17an eta 18an, baita goizetan ere, 10:00etatik 14:00etara. 46 artisau etorriko dira Majori kiroldegiko kantxa nagusian. 8 tailer ere jarriko dituzte, ikastetxei zuzendutakoak. 150 pezetako sarrera ordaindu beharko da azokara sartzeko. Sarrerak gorde egin behar dira. Zenbaki bana izango dute eta 5.000 pezetako 4 bono zozketatuko dituzte, azokan bertan gastatzeko.

Artisauentzat beraientzat izango da saririk. 3 stand dotoreenentzat 25.000, 15.000 eta 10.000 pezeta banatuko dituzte. Ordiziako Maxi Eroskik emango ditu sariak. Azokan 4 goierritar artisauak hartuko dute parte: Ezkio-Itsasoko Pott zeramika, Gabiriako Amalurrekoek (arotza eta egur dekorazioa), eta Lazkaoko Prudentzio Jauregi (pelota-gilea).

Tailerrak

8 tailer jarriko dituzte Majori kiroldegian bertan: zume saskiak (gasteleraz), keramika (bi tailer: bat euskaraz eta bestea gasteleraz), pilotak (elebiduna), egurra (euskaraz), koadernaketa (elebiduna), larrugintza (gasteleraz), otargintza (euskaraz).

Argitarapen honen euskarazko laguntzaileak

En la edición de esta publicación colabora:



fundazio
fundación

**Euskal
Herria**ren
garaia da

bozkatu

EH

Euskal Herritarrok

Zeraingo Aizpeako meategi gunea: ondare garrantzitsua

Euskal Herrian, eta zehazki, Goierrin, garrantzia izugarria izan du burdinak. Mende luzeetako historia du burdinak gure artean. Horren lekuko dira Zeraingo Aizpeako meatzeen gunea. Honi buruz eta bertan egiteko dituzten proiektuei buruz aritu gara hizketan Jakoba Errekondo Zerain dezagun fundaziko kidearekin.

Zerainen, Aizpea auzoan, Otaño mendi aldean, meatzeak urte askoan izan dira protagonista. Bertako karbonatoarekin burdin minerala atera izan zuten gure aurrekoek. XI. mendearen hasiera aldera haizeolak erabiltzen zituzten burdina lortzeko. Mendi tontorretan labe txikiak eraikitzen zituzten, haizearen energia aprobetxatuz, minerala eskuratzeko. Haizeolak ziren haiek. Legazpiko elkarte bat lanean ari da haizeolen aztarnak aurkitzen eta emaitzak hasi dira agertzen. Haizeola bat baino gehiagoren oinarriak aurkitu dituzte eta baita zepadi edo hondarrek ere. Zeraingo mendiren batean ere aurkitu dituzte.

Haizeolen ondoren labearen sistema etorri zen. Baina Zerainen, kiskaltze edo kalzinazio prozesua egiteko labeak dituzte. 1515eko datuak dituzte Zerainen. Juana erreginak meatzeak Aretxabaletako Otoratarrei eman zien esplotaziorako baime-na. 1826a arte. Baina, XIX. mende hasieran meatzeen

Aizpeako meatzeak eraberritzeko proiektuak

Zeraingo Udalak erosi ditu Aizpeako meategietako lur-rak. "Guretzat Aizpeako meatze gunea Zerainek daukan ondarerik garrantzitsuena da. Meatzeak ez daude edozein lekutan, eta gutxiago sistema honekin. Zerainen bakarrik daude kiskaltze edo kalzinazio la-beak. Bi kilometrotan extra-zioa, garraioa eta kalzi-nazioa elkartuta, inon ez dago. Arkeologoez garrantzia horri ematen diote, prozesu guztia oso kon-zentratuta dagoelako. Era-berritzen ari gara eta ikus-teko moduan jarri nahi du-gu. Izugarritzat dirutza be-har da hori dena martxan jartzeko", argitu du Jakoba Errekondok.

Europako Reveil proiektuan sartu dira zerainda-rrak, Greziako Xanthi he-rria eta Frantziako Dordo-niako kontseiluarekin bate-ra. Hiru herriek proiektu ezberdinak dituzte. Zerain-darren kasuan, meategiak

lege aldaketa etorri zen. Or-durarte, lurrazpia erregeare-na zen eta lege berriarekin, lurrazpia estatuarena dela esaten da. "Orduan edozei-nek eska dezake esplotatze-ko aukera. Dokumentu asko sortzen da Seguran eta no-taritzetan, inguruko jende asko hasten da kontzesioak eskatzen. 2 karlistadetan, berri-z, Karlistek hartu zi-tuzten meatzeak beraientza-ko produkzioa egiteko", ar-gitu digu Jakoba Errekon-



eraberritu eta jendearen erakusgai jartzea. Berri-kuntza egiten ari diren bi-tartean ere zabalik egongo dira meategiak eta erre-stau-razio bera produktu turis-tiko bezala salduko dute. Da-goeneke hasi dira taldeen-tzat bisitaldiak antolatzen, oinarritzat segurtasun neu-riak hartu baitituzte. Hor-tik aurrera, "jendeak dirua utzi ahala erre-auratzen jarraituko dugu".

Asmoak

Oinarritzat segurtasun neu-riak hartu eta seinalizazioa jarri ondoren, galeria handi xamar bat aukeratu eta moldatu nahi dute. Admi-nistratioko etxea ere txu-kundu nahi dute. "Ingele-

dok.

Ingelesak

1852an, meatze txikiek 'La Union de Cerain' enpresa sortu zuten. 1892an ingele-sak etorri ziren. 'The Cerain Iron Ore Company Limited' izena hartu zuen. "Hemen-dik Pasaiaraino tren-a erai-kitzeko proiektua ekarri zu-ten, burdina eramateko, baina ez zuten eraiki. Ga-rraio arazoagatik porrot egin zuen enpresak. Hauek

sek eraikitako etxea da, be-raien arkitekturarekin. Pa-retak mantenduz, teilatua egin nahi diogu eta bertan harrera bulego bat jarriko genuke".

Aurreragoko asmoa, ale-maniarrek eraiki zuten tren-a berreskuratzea dute. Sis-tema energetiko guztia, eguzkiaren indarrarekin erabiliko da. "Pedagogiko-ki ere gauza interesgarri bat edukiko genuke. Larra-ondoko zerrategia, energia hidraulikoaz erabilia; egur ikatza nola erabili izan den ikusiko da meatzean; eta orain eguzki indarra nola erabiltzen den ikusiko da". Azken hauek, dirua eskura-tu ahala egiteko asmoa du-te.

mina eremu barruan eraiki zuten trenbidea. Teleferikoa ere eraiki zuten, Mutiloa-raino. Mutiloan beste tren txiki bat zegoen eta gero beste teleferiko batekin Or-maiztegiko tren estaziora eramaten zuten minerala", esan digu Errekondok.

Lehenengo Mundu Gerra etorri zen eta oraindik ez dago jakiterik gerra bitarte honetan zer gertatu zen. 'The Cerain Iron Ore Com-

pany Limited' enpresak 'The Cerain Mines Limited' izena hartu zuen. Azken enpresa honen daturik ez dago, artxibo guztia Londresen baitago.

Alemaniarrak

Lehenengo Mundu Gerraren ondoren, kapital alemaniarra zuen 'Compañía Montana S.A.' sortu zen. 1938an, kapital espainiarra ere tartean sartu zen eta 'Compañía de Explotaciones Mineras Aralar S.A.' sortu zen. 1942ra arte lan egin zuen. "Alemaniarrek beste ferrokarril bat eraiki zuten. Mendiaren bi aldeta-ko minerala bildu eta labe-etara eramaten zuten. Guk berriro eraiki nahi duguna da. Makinetxe bat ere eraiki zuten, trenak konpontzeko. Hauek beste teleferiko bat eraiki zuten, Ormaiztegiraino zuzenean. Kiskaltze edo kalzinazio sistema azkarra-goak jarri zituzten mineral gehiago ateratzeko. Bigarren Gerrate Mundialera arte aritu ziren esplotatzen".

Azkenean, 'Patricio

"Arkeologoek garrantzia horri ematen diote, burdin prozesu guztia oso konzentratuta dagoelako"

Etxeberriak' hartu zuen Aizpeako meatzea esplotatzeko ardura. Denbora gutxi egin zuen.

Meatzearen prozesua

Historia luzea dute beraz, Zeraingo meatzeek. Mutiloakoek ere badute bere ga-

Joan Alustiza Aizpean lanean aritua alemaniarrekin

Joan Alustiza zeraindarra, Aizpeako meategietan lan egindakoa da. 16 urterekin hasi zen eta 3 urte egin zituen. "2. Gerra Mundiala hasi zenean itxi egin zen Aizpeako meategia. Nagusia alemaniarra zen eta Alemanian gerra hasi zenean, gauetik goizera, zegoen bezala utzi eta alde egin zuen. Labea prestatuta utzi genuen, karbonatoz beteta. Baina gerra piztu zen eta hantxe gelditu zen labea beteta. Oraindik ere, bat halaxe dago".

Karbonatoa ateratzen zen Aizpeako meategietan. "Gaietako lurra kendu eta azpian dena karbonatoa zegoen. Harri hori trenez eramanean, depositua bete eta handik labeetara botatzen zen", gogoratu digu Joane. Lan askotan aritu zen Joan, harrobitik hasi eta minerala botatzen bukatzen zuen. Zeraindik Ormaizte-gira bitartean argi indar linea ere jartzen aritu zen.

Kanpotarrak

Lan asko izan zen garai hartan Aizpea aldean eta, zeraindarrez eta ingurukoez gain, kanpotar asko etorri ziren; galiziarrek batez ere. 50 bat lagun aritu ziren. "Gallegoa oso langile zintzoa izan zen. Belozidaderik batere ez zuten, baina txarra-txarra etengabe aritzen ziren lanean". Familia osoak etorri omen ziren Gali-

rrantzia. Bi herri hauetan burdina transformatu egiten zuten, gero Legazpira edo Zumarragara eramanean eta labe garaietan sartzeko.

Aizpeako meategien ka-



zatiak. Hutsik zeuden baserrietan bizi ziren. Elkar ulertzeko arazoak ere izaten zituzten. "Guk erdaraz batere ez genekien eta ahal genuena egiten genuen. Gazteenek ikasi zuten euskaraz".

Mutil gazte ederrak ziren galiziarrek Joane esan digunez: "Diru piska batekin harro-harro gustora jarri ziren. Eta gu hemen, belarriak makurtuta. Neskak haiengana ere gustorago joaten ziren".

Nagusi alemaniarrez ere badu oroitzapenik Joane. "Gizon puska ederrak ziren, barrika handiekin eta purua errez. Mozkor hutsak ziren, asko edaten zuten. Nagusi egon zenak, Cadenas edaten zuen, nik eramanean izan nion behin baino gehiagotan. Garagardoa ere ikaragarri edaten zuten. Gero azkenean, istripuan hil ziren, autoak bazterra jota".

suan, aire zabaleko harrobietatik edo lurrazpiko galerietatik ateratzen zuten burdina. 200 bat galeria dituzte kontatuta orain arte. Aizpeako harriak karbonatoa zuen. Kiskaltzeko edo

Alemaniarrek meategian bertan bizi ziren; ingelesek eraiki zuten etxean. Zutik dago oraindik ere. "Neskamearekin hantxe bizi zen, Berakoa zen neskamea. Bulegoa ere han zegoen eta Segurako bat izan zen ofizialista".

Aizpeako meategia herri txiki bat zen. Auzoan bertan ere nabari zen meategiaren eragina. 3 taberna zeuden, meategitik ateratako jendeak hantxe egiten omen zuen geldialdixoa. "Iluntzean tabernan ardo puskat edaten genuen, dirurik bazen. Barrioan ere baziren bi mutil soinu jotzen zutenak eta beti izaten zen jendea. Askotan ilundu egiten zitzaigun eta belau-netaraino lokatzetan joaten ginen etxera. Ilargia baldin bazegoen, hura izaten zen argi bakarra".

Lan eta lan

Astelehenetik larunbatera, egunean 8 ordu lan egiten zituzten. Eguneako soldata 7 pezetakoa zen. "Hura estimatu egiten zen. Jaia bakarrik izaten zen jaia. Orduak galduagatik sartu egin behar. Egunean 8 ordu egin behar izaten genituen. Segurorik ez zegoen. Labeetan bagoiak harrapatu nintuen, bajaran egon nintzen, hanka mailatu zidan. Orduantxe zegoen aseguroa jarrita, baja orduan estrenatu nuen. Oporrik ere ez zen izaten. Lana eta lana".

kalzinatzeko labea piztuta egoten zen denbora guztian eta ikatza eta burdina botaz, ateratzen zuten burdin minerala.



ORDIZIA



DOMINGO UNANUE, 1
(Tren geltoki parean)

☎ 943 88 93 25

ORDIZIA

ARGAZKIEN ERREBELATUA ORDU BETEAN

13x18cm.-ko FORMATO ARTE
ERTZ TXURIAREKIN EDO GABE


ARGAZKIEN ERREBELATUA 24 ORDUTAN

13x18cm.-ko FORMATO ARTE
ERTZ TXURIAREKIN EDO GABE

(ERREBELATU EKONOMIKOA)

ARGAZKIGINTZA DIGITALA

- X Argazkien azken ikutuak
- X Argazkien kopiak negatiborik gabe
- X Heriotza oroigarriak
- X Karikaturak
- X Egutegi pertsonalizatuak
- X Karneteko argazkiak
- X Agur-afarietarako argazki-muntaiak, etab.
- X Bisita txartelak argazkiekin



ESKA ITZAZU AURREKONTUAK
INONGO KONPROMEZURIK GABE

Goierriko Garapen Turistikoaren egitasmoa

Goiekik, Goierriko Garapen agentzia, turismo

garapenerako apustua egina du, eskualdeko dibertsitate ekonomikoaren alternatiba gisa. Goiekik Garapen Turistikoaren Egitasmoa prest du eta eskualdeko hainbat baliabide aprobeztatu, antolatu eta koordinatu nahi ditu. Aldi berean, Goierriko turismoa saltzeko proposamenak ere egin ditu. Erakunde politiko eta agente sozial guztiek aho batez onartua izatea nahi du Goiekik. Garapen Turistikoaren Egitasmoaren kudeaketaren arduraduna CIT (Ekimen Turistikoaren Zentrua) izango litzateke.

Garapen Turistikoaren Egitasmoaren barruan garatu beharreko zortzi estrategia aurkeztu ditu Goiekik, sektoreka banatuak:

1.- Ingurugiroa babesteko estrategia: eskualdeko babes-guneen babes erregimenaren azterketa eta eskualdeko beste alderdi batzuetarako babes erregimen baten azterketa egin beharko litzateke. Industrien ingurugiroari sortuta kalteen azterketa eta hauei aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak ere sortu beharko lirateke. Aldi berean, 'Goierri Garbia' sensibilizazio kanpaina ere bultzatzeko asmoa dago.

2.- Oinarritzko azpiegiturak hobetzeko estrategia: errepideetako plan orokorra burutzeko jarraipena egitea; garrantzi turistikoa duten guneetara joateko bideak egokitu eta hobetzea; eskualdeak dituen sarrera, irte-



era eta garrantzi turistikoa duten lekuetako seinaleen maila aztertu eta hobetzea; eta oinarritzko azpiegituren 'status quo' a aztertu eta aktuazio plan bat proposatzea.

3.- Eskaintza turistiko berezia definitzeko estrategia: baliabide naturalei dagokienean, zera proposatzen du Goiekik: inguru naturalen bilduma bat egin, leku egokienetan atsedenaldiak sortu, txirrinduz ibiltzeko ibilbideak sortu eta seinaleztatu, Agauntza eta Amundarain ibaiek arrantzarako eskaintzen dituzten aukeren azterketa egin, Lareoko urtegiak eskaintzen dituen aukerak aztertu eta Goierriko inguru naturalez errespetu osoz gozatzeko iharduera proiektuetarako ideien txapelketa antolatzea.

Baliabide historiko kulturalen barruan, ildo hauek zehaztu dira: edozein izaerako festen zerrenda egitea, iharduera desberdinetan ekin tzak burutzen dituzten pertsonen zerrenda egitea, historiaurrearen inguruan txango turistikoak antolatzea, industria aurreko eta industria garaiko ondarea aztertu eta sailkatzea eta eskualdean dauden oroigarri historikoen seinalizazioari buruzko azterketa egitea.

Nekazal baliabideen atalean, Goierriin produzitzen diren nekazal gaien bilduma egitea, kalitatezko eskulan produktuak bereizteko label edo ezaugarriak sortzeko ahaleginak egitea eta produktuen dastaketa txapelketak bultzatzea proposatzen du.

Eskularen baliabideei dagokienean, artisauen eta hauen lanen zerrenda egin eta beraientzat azoka bereziak antolatzea dira Goiekiren asmoak.

Eta azkenik, sukaldaritza baliabideen atala dago. Zera proposatzen da: 'Goierriko Menua' sortzea eskualdeko ezaugarriak dituzten produktuez osatua, eskualdeko jatetxeekin batera sukaldaritza iharduerak antolatu bertako errezeta eta produktuak ezagutzera emanez.

4.- Estrategia hezitzaiketa eta kalitatezkoa: atal honetan, heziketa egitarau orokorra garatzea sartzen da, bai formazioari, bai kalitateari dagokionean.

5.- Zerbitzu turistiko berriak sortzeko estrategia: Pauso bat baino gehiago proposatzen ditu: Aralar eta Aizkorriko zerbitzua emateko naturako gida taldeak sortzen bultzatzea; bisitari asko egoten diren le-

kuen eta zabor asko pilatzen den tokien garbiketa orokorra ingurugiroa zaintzeko; hirigune inguruak egoki mantentzeko pausuak ematea; bisitariak egoten diren lekuetan, iharduerak garatzeko eta burutzeko lan taldeak sortzen bultzatzea; informazio turistikoa eta helburu honetarako sortzen diren guneen mantentzea eta seinalizazio turistiko orokorra eta partikularra egiteko lanak ematea bultzatzea.

6.- Merkatal estrategia: alojamentua eta bertako jarduerari buruz, pertsona kopuru ezberdinez osatutako taldeentzat eskaintza bereziak egitea; eta era honetako egitarauen garapena bultzatzen duten ekimen pribatuentzat dirulaguntzak lortzeko ahaleginak egitea proposatzen du Goiekik.

7.- Barne komunikazioaren estrategia: iharduera guztiei buruzko etengabeko informazioa ematea; sensibilizazio kanpainak egin, goierritarrek parte har dezaten, garapen turistikoaren egitasmoak duen edukinaren berri emanez; turismo eta garapenari buruzko ihardunaldiak antolatzea; eta alojamentu eskaintzaren aldeko kanpainak egitea (hirigunetik kanpo aurkitzen diren hotel txikiei eta nekazalturismoko egoitzei emango zaie lehentasuna).

8.- Kanpo komunikazioaren estrategia: Lehenik eta behin, eskualdean definitzen den eskaintza multzoa bereizteko balioa izango duen logotipo eta lema bat sortzea proposatzen da. Horrekin batera, besteak beste, produktuen sustapenerako materiala sortzea, azoketan parte hartzea, prentsan marketinga egitea eta abar.

ORDIZIA

Herriko enbaxadore lanak egiten aritu ziren aurreko asteburuan Santa Ana abesbatzako abeslariak Kataluniar lurretan. Izan ere, Premia de Mar eta Arenys de Mar herrietan izan genituen euren kantuak eskainiz eta era berean aspaldiko kontuak birgogoratuz. Bartzelonako Premia de Mar herrian izana zegoen Santa Ana abesbatza orain 12 urte, orduan ere gure kulturako zati hori eskainiaz. Harrezkeroz elkarren arteko harremana sendotuz joan da. Horren eredu gisa hor daukagu herriko jai nagusietan Premia de Mar-eko Simplement Diables taldeak eskainitako suzko kale ikuskizun aparta.

Abesbatzakoak larunbatean Premia de Mar-en izan ziren eta hurrengo egunean Arenys de Mar-en izan zuten kantaldia. Bietan euskal abestiak nahiz kataluniar kantuak eskaini zituzten hango jendearen gustorako. Abesbatzakoekin batera Ordiziako Txistulariak taldeko batzuk ere joan ziren eta baita Beti Argi bandako

Santa Ana abesbatza Katalunia aldean



*Santa Ana abesbatza, kontzertua eskainiz Ordizian.
Egun hauetan, Katalunia aldean izan dira.*

tronpetajole batzuk ere.

Areto futbola

XIV. Eskualdeko Futbito Txapelketa martxan da da-goeneko. Aurreko asteburuan lehen norgehiagokak ikusteko aukera izan zen Majori Kiroldegian, larunbatean hain zuzen. Azkenean 18 izan dira izena eman duten taldeak eta antolatzailerik bi multzotan banatu dituzte. 'A' multzoan Foto Ibiltaria, Urbitarte Sagardotegia, Laostiajode, Juantxo (iazko txapeldunak), Laket, Titin, Babatxiki, Sylum eta Sefons daude

elkarren artean aritzeko eta 'B' multzoan, berriz, Bada-go, Wiskas, Harrike, Tximista Sagardotegia, Automaticos Anoeta, Lacalde 'b', Alboka Tabernan, Hemistikio eta Irrintzi.

Lehen fasea ligaxka moduan jokatu da eta hurrengora multzo bakoitzeko lau onenak pasako dira. Neurketak larunbat eta igande goizetan jokatu dira, beti ere talde federatuek aretoa libre uzten duten heinean.

Emakumeak eta osasuna

Gizarte ongizate sailak antolatuta 'Emakumeak eta osasuna' izeneko topaketak izango dira urria, azaroa eta abenduan zehar Barrenan. Honi buruzko zehaztasunak agendan topatuko dituzu.

Lan eskaintza

Ordiziako 'Herrikoa Taberna' rako bi langile behar dira, egun osorako bata eta egun erdirako bestea. Interesaturik bazeunde zure curriculum bidali besterik ez daukazu, Elkano kalean dagoen 'Herrikoa' taberna bertara. Urriaren 27a baino lehenago egin beharko duzu hau.

Artisaualdia

Asteburu honetan Majori kiroldegian Gipuzkoako artisauen azoka izango da. Tailerretan parte hartzeko aukera ere izango da. Informazio gehiago, 12. orrialdean.

Aitor Calvillo



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79
Oriamendi, 30 BEASAIN

Olagi
Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurrrer lantegialdea, 10
☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

IDIAZABAL

Kanposantua berritzeko lanak



Kanposantuko lanak ez dira Santu Guztion egunerako amaituko.

Udala kanposantua berritzeko 40 milioiko inbertsioa egiten ari da. 144 nitxo berri eraikiko dituzte. Orain arte kanposantuaren ezkerreko aldean zeuden hilobiak kendu eta bertan ari dira berriak egiten. Horietatik 44 tamaina txikikoak dira. Lurpetik atera ondoren, senitartekoen gorpuzkinak berriro gorde nahi dituztenek eskatuta ari dira horiek egiten Udaletxeko iturriek adierazi dutenez.

Nitxoak bukatutakoan, ingurua txukuntzeko lanak egingo dira. Besteak beste, orain nitxoak jarrita egongo diren lekuetan lurperatuta zeuden izenak izango dituen oroigarria jarriko dute. Lurpetik atera ondoren gorpuzkinak gordetzeko hilobi amankomuna txukuntzeko lanak ere aurrikusita daude.

Kanposantuko sarreran elbarrientzako sarrera berria moldatuko dute. Berrikunt-

za lanak uste baino mantsoago doaz eta Udaletxetik jakinarazi dutenez, Santu Guztien egunerako bukatu gabe egongo dira lanak.

Kiroldegiko ordutegiak

Kiroldegian ikasturte honetarako hainbat ordutegi zehaztu dituzte dagoeneko. Gimnasia egiteko bi aukera



Etxegarateren bikoizketa

Gipuzkoako Diputazioko Gobernu batzordeak Etxegarate bikoizteko proiektua onartu zuen irailaren 29an. Diputaziok lanak udaberrian hasiko direla berretsi zuen, horretarako aurrekontua, 9 mila milioikoa da. Etxegarateko bikoizketa hasterako barianteko lanak bukatuta beharko dute. Bigarren faseko lanak martxa onean doaz eta begibistakoak dira errepide berriak ekarriko dituen aldaketak.

daude aste barruan iluntzetan. Astelehena, asteartea eta asteazkena aukeratu dituzte ordutegi bikoitz hau

eskaintzeko: arratsaldeko 7etatik 8etara eta 8etatik 9etara.

Yoga taldea ere osatu da nahiz eta ordutegia oraindik zehaztu gabe zegoen. Gimnasioa goizez erabili nahi duenak goizeko 9etatik 11ak bitartean izango du horretarako aukera.

Mendiko bizikleta Udaletxean

Errekalde baserriaren inguruan aurkitutako mendiko bizikleta berri bat dago Udaletxean jasota. Bizikleta horren berri jakin nahi duenak Udaletxera jo besterik ez du.

Xabier Urteaga



Gazte bazkaria

Urriaren 10ean Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte bazkaria egin zen. Giro ona izan zen bertaratu zirenen artean.

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

ANGEL IMAZ

PINTURA
eta
PAPERGINTZA

☎ 943 18 70 49
Ondramuño etxea IDIAZABAL



KUBIA

FAMILIAK EUROPA GUZTIAN ETA EEBetan
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN

Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
Tel-Faxa: 943 43 15 48

ZEGAMA

Tobera musika eskolaren batzarra

Hasi berria da ikasturtea al-de guztietan eta Tobera musika eskolak ere irekiak ditu dagoeneko atea. Ikasturte-arekin batera, asanbladara-ko deia zabaldu dute. Batzarra urriaren 26an egingo da Kultur etxean, lehenengo konbokatoria iluntzeko 8etan izango da eta bigarre-na 8,30etan.

Bertan landuko diren gaiak ondorengoak izango dira: 97-98 ikasturteko kon-tuen balantzea; 98-99 ikas-turteko aurrekontua; 97-98ko memoria; 98-99ko plangintza eta azken hautes-kundeen ondoren emaitzen arabera Zuzendaritza bat-zordeko partaide berrien aurkezpena egingo da.



Kultur etxean izango da urriaren 26ko batzarra.



Joan zen astean egindako euriak ondo mugitu zituen erreka. Ibarreta auzoan ateratako argazkia da lekuko.

Internet zerbitzua, Kultur etxean

Kultur etxean ordenagailu bat jarri da Internet sareari konektaturik. Internetak ematen dituen aukerak kon-tutan izanda, zerbitzua her-ritarrei zabaltzeko komeni-garritasuna ikusi da. Hau horrela izanda, zerbitzu ho-

nen erabileran interesaturik daudenek izena eman be-harko dute Udaletxean. Ize-na ematen dutenekin zerbit-zuaren funtzionamendurako antolaketa bide desberdieni buruz hitz egingo da, horre-la erabilerara egokia lortzeko erabakiak hartuaz.


Maidar Azurmendi



Kafe hauek denak...
FREXXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira



Egunero herriz-herri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUE KAFE
XUABEA

BEASAIN

Enpresa berriak sortzeko proiektu lehiaketan 2. saria Iñaki Mujikarentzat



Mikel Lazkano donostiarrarekin batera, Eusko Jaurlaritzak antolatu duen enpresa berriak sortzeko lehiaketan 2. saria lortu du Iñaki Mujika beasaindarrak. 800.000 pezetako saria eskuratu dute. Bi gazteek aitortu digutenez, ondo etorriko zaie sortu berri duten enpresarako. Argot Multimedia enpresa jarri zuten martxan irailan. Sariaren berri, enpresa sortu ondoren jakin zuten. Ezusteko handia izan omen da. Jakitera eman digutenez, enpresa berriaren proiektua euskaraz aurkeztu zuten.

Oinarri digitalean eta teknologia berrietan diseinuak egiten dituzte; hau da, besteak beste, Web orrialdeak eta CD interaktiboak. Horrelako zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa askorik ez omen dago hemen. Batez ere enpresei zuzendutako zerbitzua da.

Diseinu Grafiko ikasketak egindakoak dira biak. Hainbat enpresetan praktikak egin ondoren, egonkortasun eza ikusirik eta baldintza txarretan lanean ibili ondoren, beraien enpresa sortzea erabaki zuten. Aitortu digutenez, gazteek enpresak osatzeko laguntzak badaude, baina gero zenbait baldintza bete behar dira. Lan honetan, gogorrena, beraien produktua saltzen aritzea egiten omen zaie gogorrena.

'Eguneko zentrua'

Urbialden kokatuko da 'Eguneko zentrua', Udalak hainbat azterketa egin ondoren. 19 milioi kostako dira egokitze lanak. 60 urtetik gorakoentzat egoitza da 'Eguneko zentrua'. Bertan egoteko izena ematen dutene, eguna pasatuko bertan lukete eta gauean etxera joango lirateke.

Beasainen 11 milioi bildu nahi dira Egin egunkari berria egiteko

Egin egunkaria ordezkatuko duen egunkari berria sortzeko dirua biltzeko kanpaina martxan dago. Euskal Herria osoan 1.000 milioi biltzeko asmoa du horretarako sortu den Baietz fundazioak. Urriaren 9an aurkeztu zen Udaletxeko Batzar aretoan eta beasaindarren artean 11 milioi lortzea da helburua. Horretarako 100.000 pezetako akzioak daude salgai. Herriko elkarte, talde, indar politiko eta sindikal, industria, pertsona eta abarretara heldu nahi dute Baietz fundaziokoek. Dirua eman edo informazio gehiago nahi dutenek, egunero, Arrano tabernan izango dute aukera, iluntzeko 8etaik 9etara. Telefono zenbaki bat ere badago: 930-386818 (Karlos). Kanpaina aurkezteaz gain, egunkari berria nolakoa izango den aurkeztu zuten.

Ikusentzunekoak

Julian Auzmendi Matxainen 'Artzantza Urtaroan' ikusentzunekoa aurkeztuko du, Udaletxeko Batzar aretoan, urriaren 20an, 19etan.

Urriaren 23an, berriz, Erramun Oiartzabalen 'Domiminika 96' diapositiba bilduma ikusgai izango da, 20:00etan, Aizkorri Mendizale elkartearen.

Udazken kulturala

Urriaren 31n hasi eta azaroaren 15era arte iraungo du aurtengo Udazken kulturalak. Argazki rallya, haurparkea eta Tapiola Ganbara abesbatzaren kontzertua izango dira lehenengo egunetan. Hurrengo alean izango duzue gainerako ekitaldien berri zehatza.

URBITARTE
sagardotegia



Erreserba telefonoa
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN

SEGURA

Metro karratuko 577 pezeta

Pasa den astean jakin zuten Madurako barianteak eragindako lurjabe kaltetuek zer diru jasoko duten desjabetzeagatik. Lurrak baratza modura izan dira baloratuak eta metro karratuko 577 pezetaren jabe egingo dira. Lurra erdibituta geratu zaienei zatiak erosteko aukera eman diete prezio berean. Eskaintza sinatu dutenek 3 hilabete ingurura jasoko dute ordaina.

Dominak odol emaileri

25 odol emanaldi egin dituzten emaila goierritarrei dominak banatuko zaizkie urriaren 24 iluntzean Ataungo udaletxean. Aurtengoan domina hori jasoko duten segurarrak Lurdes Kerejeta eta Txetxu Ormazabal izango dira. Ondoren afaria izango dute Bittor jatetxean.

Hauteskunde mahaiak

Irailaren 29ko plenoan boto-emaila guztien artean egingako zozketan jakin ziren urriaren 25eko hauteskundeetan Udal-liburutegiko mahaietan egongo direnen izenak. 'A' mahaiak, Juan Jose Aranzadi Iparragirrek (lehendakaria) eta Iñaki Xabier Auzmendi Alustizak eta Ana Jesus Aldanondo Auzmendik (bokalak) osatuko dute. 'B' mahaiak, berriz, M^a Jesus Mendizabal Zubizarretak (lehendakaria) eta Joxe M^a Murgiondo Agirrek eta Amaia Lardizabal Mendizabalek (bokalak).

Futbola

Asteburuko emailzak: Errejonialak: Segura 1-1 Hamaikak-bat. **Jubenilak:** Segura 0-3 Lehengokoak. **Kadeteak:** Beasain 0-4 Aiz-

Kirol eskolarra eta Kirol sustapena

Eskolorduz kanpo, heziketa eta jolasa helburu izanik eta Xabier Intxaustiren ardura-pean, 8tik 16 urte arteko 60 neska-mutiko herritarrek 13. aldiz parte hartuko dute eskualde mailako kirol eskolarrean. Bihar, urriak 17, hasita ekainaren erdirarte, benjamin, alebin, infantil eta kadeteetan 8 kirol ezberdinetan lehiatuko dira zapatu-jaietan zehar. Bakoitza modalitate batean baino gehiagotan aritu daitekeen, guztira 132 partehartzaile izango dira. Laiotzeko DLHko 48 ikasletatik 45ek (26 mutikok eta 19 neskak) eman dute izena eta Seguratik kanpo dabilen DBHko 30etatik 15ek (10 mutikok eta 5 neskak).

Areto-futbola: 45 neska-mutiko, benjamin, alebin eta kadeteetan. Taldea osatzerik izan ez duten infantilek Ataungoekin jokatu dute. **Mendia:** 20 neska-mutiko. Guztira 10 irteera izango dituzte. **Atletismoa:** 20 neska-mutiko, benjamin, alebin, infantil eta kadeteetan. **Pelota:** 19 mutiko, benjamin, alebin eta kadete-

korri. **Infantilak:** S.Herrera 2-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Billabona, zapatuan, 16:30ean. **Infantilak:** Aizkorri-Lehengokoak, jaien, 11:30ean.

Labur-labur

● **Bola:** urriaren 3an, Antonio Agirrek irabazi zuen Gabiriako 'Osinalde' bola saioa, 6 botalditan 36 birla jota.

● Elorri K.E.-ak urriaren 18ko Nafarroa Oinezarako antolatu duen autobusa goizeko 8,30etan irtengo da plazatik. Autobus txartelak



Aurreko denboraldian mendiko taldeak Erniera egindako irteera.

tan. **Igeriketa:** 14 neska-mutiko, benjamin eta alebinetan. **Tenisa:** 9 neska-mutiko, alebin eta infantiletan. **Mahai-tenisa:** 3 mutiko, alebinetan. **Trialsina:** 2 mutiko, alebinetan eta infantiletan.

Mendi irteerez Txetxu Ormazabal eta pelotaz Patxi Etxeberria arduratuko dira. Gainerakoez Xabier Intxausti. Areto-futbolearen laguntzaile izango ditu Ibai Telleria, Inge Olano, Ekhi Albizu, Uritz Gonzalez eta Joxe Mari Gereñu. Gurasoak, txandaka, haurrak garraiatzeaz arduratuko dira.

Bihar, areto-futbolarekin

hasiko dira eta urriaren 18an, goizeko 8etan plaza-tik irtenda, 1go mendi irteera izango dute Zumarragako Izazpira.

Kirol sustapena

Eskolorduen barne eta lehen aldiz, igeriketa eta xake saioak antolatu dira 3tik 8 urte artekoentzat, irailaren 21etik urriaren 20 arte. Helburua, kirola ezagutu eta ikastea da; ez dute txapelketa zentzurik. Igeriketan 4. maila arteko 51 ume ari dira Ordiziara joanez. Xakean, 3. mailatik gorako 26 haur dabilza Seguran bertan. Otsailean txirrindularitzarekin hasiko dira.

Elorripen daude 1.000 pezetan.

● **Euskal Herritarrok** taldeak, hauteskunde kanpaina dela eta, herri afaria antolatu du 'Kuxkuxtu' txarangakoe-kin urriaren 23rako Elorri berriko etxabea. Afari txartelak Elorripen salgai.

● **Preso taldea:** Segurako presoen aldeko taldeak antolatutako lehiaketara aurkeztutako 48 argazkiak plazan jarriko dira ikusgai urriaren 24an. Hauek, presoei idatziz bidaltzeko aukera izango da.

● **Eskola kontseilurako** hautagai aurkeztu nahi duen

gurasoak, batzordeko gurasoren batekin edo eskolako zuzendariarekin jarri behar du harremanetan urriaren 26a baino lehen.

● **Zabor-tasak:** datorren astetik hasita, azaroa bitartean dira urtean behingo basuraren tasa kobratzekoak. Sektoreka ordaintzen dena: kaletarrak 7.930 pezeta etxebizitzako (5.430 etxebizitza hutsik badago), baserriek 6.520, dendek 9.635, taberneak 19.285, jatetxeek 26.650, tailer txikiak 20.200 eta handiek 27.925.

Joseba Telleria

LAZKAO

Etxebizitza sozialen banaketa egina dago



Badirudi, Atauna bidean eraiki diren etxebizitza sozialen istorioa amaiera alde-
ra iristen ari dela. Orri haue-
tan eman genizuen etxebi-
zitza horien eraikuntzaren
berri, zein proiektu zen eta
proiektu horren nondik no-
rakoak, ondoren, adjudika-
zio sistemaren berri ere
eman genizuen, eta orain
badirudi azken pausoak
ematen ari direla etxebizi-
tzen banaketarekin.

Prozesua pixka bat luza-
tu bada ere, dagoeneko
amaierara iristen ari da. Be-
rrogeiren bat eskakizun
egin ziren hogeita lau etxe-
bizitza betetzeko, hauetatik,
hamazazpi eskakizun baka-
rrik onartu dira, baldintza
guztiak betetzen dituztela-
koan. Hamazazpi hauek,
beraz, beraien etxebizitza
izango dute. Onartutako es-
kakizun hauen zerrenda
Udaletxean ikusgai egongo
da azaroaren 5a arte.

Gainontzekoek, azaroa-
ren 6tik abenduaren 6ra ar-
teko epea dute errekurtsioa
aurkezteko. Errekurtsio
hauek aztertu ondoren era-
bakiko da, zeini eman bana-
tu gabe dauden zazpi etxe-
bizitzak, eta baldintza eko-
nomikoak aldatzen diren
ere orduan erabakiko da.

Udaltzain postua

Udaltzain postu berria be-
tetzeko eskariak egin dai-
tezke jadanik Udaletxean.
Nahiz eta epe ofiziala, Es-
painiako Boletín Ofizialean
berria agertu eta ondorengo
hogeia egunetakoa izan,
Udaletxean esan digute es-
kariak egin daitezkeela jada-
nik, Gipuzkoako Boletínean
agertu baita lanpostu horren
berri.

Azterketak, berriz, epe
ofiziala amaitu eta handik
bi hilabetera hastea espero
da, abendurako beraz, pro-
zesua martxan jarrita egotea
espero da.

Ekimenaren eskerrak

Lazkaoko Ekimenak eske-
rrak eman dizkie San Migel
egunean 'Euskal preso guz-
tiak Euskal Herrira' lema-
peko manifestazioan izan
zirenei. Eguraldiak lagundu
ez bazuen ere herriko talde
ezberdinek hartu zuten par-
te manifestazioan, beste
hainbatek, berriz, atxiki-
mendua azaldu zuten. "Ba-
dirudi, geroz eta gehiago,
jendea presoak gaur egun
jasaten duten egoera la-
rriaz jabetzen ari dela",
diote ekimenekoek.

"Udazken-ero" ikastaroak

Goierriko Euskal Eskola
Kultur Elkartek hiru ikas-
taro antolatu ditu hilabete
honetarako: pandero ikasta-
roa eta puntu ikastaroa.

Pandero ikastaroa, urria-
ren 19tik 22ra egingo da
arratsaldeko 3etatik 4etara
edo 7,30etatik 8,30etara.
Maizpide Euskaltegian
egingo da ikastaroa 500 pe-
zetaren ordainetan. Izena
urriaren 17a baino lehen
eman behar da Gerriko Li-
burudendan (943-886500).
Panderorik ez duenak bur-
dinezko plater batekin ber-
din berdín ikasiko omen du.

Puntu ikastaroa, urriaren
26tik 29ra burutuko da
arratsaldeko 7etatik 8etara,
Gerriko Txokoan 500 peze-
taren truke. Honetarako,
izena urriaren 21a baino le-

hen eman beharko da Gerri-
ko Liburudendan. Orratzak
eta haria norberak eraman
beharko ditu.

Hika-staroa antolatu dute
Goierriko Euskal Eskolaren
laguntzaz, Maizpide Eus-
kaltegian eta Goiztiri
AEKn. Ikastaro honetan, hi-
tanoaren erabilera ikasi eta
sakontzeko aukera izango
da. Hamabi orduko ikasta-
roa izango da eta bere kos-
tua 3.000 pezetakoa. Azaro-
an eta abenduan egingo den
ikastaro honetarako Maizpi-
den (943-889231) edo
Goiztiri AEKn (943-
889340) eman beharko da
izena eta ordutegien infor-
mazioa ere bertan emango
zaizue zehatz-mehatz.

Beste eskaintzak

Urriaren 20an, Maizpide-
ko jangelan, bertso afaria
eskainiko dute Goierriko bi
bertsolarik. Herritarrak ere
gonbidatuta gaude 500 pe-
zetaren truke une goxo bat
pasatzera.

Urriaren 21ean, Manoli
Barrenetxeak, 'Tibet eta
Budismo Tibetarra' bideoa
eskainiko du Maizpideko
Areto Nagusian gaueko
9etan.

Urriaren 28an, 'Gipuzkoa-
ko Festak: Udazkeneko eta
Negu Haserako Festak' dia-
porama ikusteko aukera
izango dugu Maizpiden
gaueko 9etan

Urko Irastorza

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA


MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



ATAUN

1998-99 denboraldia hasi eta gero asteburu honetan jokatu dira 3. ihardunaldiko partidua. Ataun Kirol Elkartek, aurten, areto futboleko lau talde ateraditu: hiru mutilenak eta bat neskena.

Iaz lehen mailara igo zen taldeak aurten babesle bezala Generali aseguru etxea izango duenez, taldearen izena Ataungo Generali izango du. Lehen maila honetan 16 taldeek parte hartzen dute.

Bigarren taldeak, berriz, Bigarren Mailan parte hartuko du eta bertan 11 talde izango dira. Hauek ere babesle berria izango dute, Bitor Jatetxea hain zuzen.

Jubenil mutilak eta Jubenil nesken txapelketen hasiera, urri aldera izango da. Opa diezaiegun iaz bezain kanpaina ona egitea.

Mapa Toponimikoa

Udala, Ataungo Udalerriko Mapa toponimikoa egitera doa. Bere helburua batez ere herrian dugun toponimo aberastasun altxor hori biltzea izango da. Mapa

1:15.000 eskalan joango da.

Azal nagusiak, mapa hau, toponimoen aurkibidea eta nukleoen planoak jasoko ditu. Atzeko aldean, berriz, Ataungo udal barrutiaren planoak, ibilbide turistikoak, trikuharriak, erakuntza historikoak... eta herriari dagokionez informazio interesgarria jasoko da.

Lan hau Etnogintza enpresari agindu zaio egiteko, 4.885.920 pezetako aurrekontuarekin eta sei hilabete epean amaituta egon behar du.

Euskal Mitologia Diaporama

Joxemiel Barandiaran izan da zalantzarik gabe, euskal mitologia gehien ikertu eta metodologikoki landu duen lehena. Herriaren sinismen, kontu zahar eta leiendak daude oinarrian. Garai hartako Ataunek lehengo bizi-moduen parte bat gordetzen zuen. Ataunen mitoez bizirik zeuden. Txikitatik entzun eta sinistarazitako kontuak, gure gurasoen-



Maripetralin eta bere sorginak

Jentilen Etorrerak 98

Hasita omen dira Jentilak, Sorginak, Basajaun, Etsai, Torto, Samartin Txiki eta beste pertsonai mitologikoak Azaroaren 15ean herria bixitatze bitartekoak prestatzen. Herriarrok gure aldetik ere prestatzen hasi beharko gara merezi duten ongi etorria emateko. Aurten ere berrikuntzekin omen datoz.

gandik jasotako pasadizoak gaur egun ia ez dira ezagutzen.

Mito gehienak mendian sortu ziren, lehengo bizi-modua mendiari lotuta baitzegoen: baserria, artzantza, basogintza...

Diaporama honen helburu nagusiak, euskal mitoa

mundu hauengana gertatu eta azaltzea eta Joxemiel Barandiaranen pertsonaia- ren ezagupidea zabaltzea izango dira. Lau hilabete epean, lana Diapolan enpresari agindu zaio eta 4.000.000 pezetako aurrekontua du.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Iberdrola txirrindulari talde afizionatuak 24 garaipen lortu ditu denboraldian

Peio Garaialde eta Xabier Aldanondok gidatzen duten taldeak helburu apalekin hasi zuen denboraldia. 14 txirrindularirekin hasi ziren eta 12rekin egin dute denboraldi osoa, eta hauen artean elite mailako bakarra, Jose Antonio Garrido. *"Kontutan hartu behar da beste taldeek 20 txirrindularitik gora dituztela, baita 30etik gora ere. Hala ere gure txirrindulari guztiak ondo ibili dira eta ondo bukatu dute denboraldia"*, esan digu Aldanondok.

Irailaren 29an bukatu zuten, Oñatin azkeneko lasterketa irabaziaz. Denera 24 garaipen lortu dituzte, hauen artean 3 bira, Bidasoakoa, Segobiakoa eta Goierrikoa. Honez gain taldeak ere lasterketa ugari irabazi dituzte. Jose Antonio Garrido bizkaitarrak 8 garaipen lortu ditu, Iban Sastre 21 urteko aretxabaletarrak 5 garaipen, Xavier Florencio 19 urteko kataluniarrak eta Ivan Gutierrez 20 urteko santandertarrak 4na garaipen, Juan Manuel Garate 22 urteko irundarrak 2 garaipen eta Gorka Gonzalez 21



Peio Garaialde eta Xabier Aldanondo Iberdrola taldeko zuzendariak, biak ere Beasainen bizi diren Segurarrak.



urteko zarauztarrak garaipen bat lortu dituzte. Hain talde gaztea izateko denboraldi bikaina.

Honelako denboraldi bikaina aurrera eramateko Peio Garaialdek egindako lana azpimarratu nahi du Xabier Aldanondok: *"Berak eramaten ditu aurrera taldearen erakuntza eta erlazio lan guztiak, berak prestatzen dizkie txirrindularien denboraldiko plangintza, lasterketak eta eguneroko entrenamenduak. Ikaragarria da egiten duen lana eta askotan behar bezala errekonozitu gabe geratzen dena"*.

Datorren denboraldiari begira aldagetak izango di-

ra taldean, denak oraindik zehaztu gabe badaude ere. Alde batetik Iban Sastre, Eneko Yarza, Ion Garraus eta Txomin Bartolome beasaindarrak taldez aldatuko dute. Garrido eta Garate seguraski profesioaletara pasako dira eta asmo hau gauzatzen ez bada Iberdrolan jarraituko dute. Xabier Aldanondo berak ere taldeko zuzendari bezala dituen ardua nagusiak utzi nahi ditu, taldeari lotuta jarraituko badu ere. *"Lehenengo txirrindulari bezala eta orain zuzendari bezala, beti etxetik kanpora nabil. Gainera oso zaila da aldi berean lana eta txirrindularitza aurrera eramatea"*, dio Aldanondok.

Beasain aurrera, Errege Kopan

Eibar kopako lehiaketatik kanpo utzi ondoren, Logroñes gainditu du Beasaingo futbol taldeak. Etxean lehen partidua 3-1 irabazi zuten eta itzulikoa 0-0 berdindu Errioxa aldean.

2.A mailako bi talde kanpoan utzi ondoren Coruña Deportivo edo lehen mailako talde bat nahi zuten beasaindarrek baina beraien maila berdinean dagoen Benidorm suertatu zaie zozketan. Lehen partidua Beasainen izango da 28an eta bigarrena Benidormen azaroaren 11n.

Euskal Herriak Suitza gainditu du segan

Larraitzen urriaren 4an bildu ziren 500 ikusle euskal segalarien nagusitasunaren lekuko izan ziren. Gizonezkoek (Juan Mari Agirrezabala lazkaotarrak eta Mikel Garmendia gaintzarrak) 40 minutuko txanda egin zuten eta emakumezkoek (Izaskun Larrarte ibarratarra eta Arantxa Agirrebarrena amezketarra) 20 minutukoa.

Agirrezabala eta Garmendiak suitzarrek baino 438 kilo gehiago ebaki zuten (3.185 euskaldunek eta 2.747 suitzarrek) emakume euskaldunek 428,5 kiloko aldea kendu zieten (1.290 euskaldunek eta 862,5 suitzarrek).

Areto futbol ikastaro arrakastatsua

Harrera eta arrakasta handia izan du Euskara eta Kirola programaren barruan eman den lehenengo ikastaroak, areto-futbolarenak. Irailaren 28tik urriaren 2ra izan da Ordizian eta 41 lagunek hartu dute parte. Gipuzkoako Areto-futboleko Federazioko teknikariek eman dute 12 orduko ikastaro hau, eta areto-futbolaren inguruko hainbat gai jorratu dira, esate baterako: psikopedagogia, areto-futboleko arauak, entrenamendu fisikoa, teknikak, taktikak... Ikastaroa jarraitu dutenen artean %90 eskola kirolean dabilen monitoreak izan dira eta %10a areto-futbol taldeetako entrenatzaileak. Parthartzaile gehienak (%70) ordiziarrek izan badi- ere, inguruko herrietakoak ere izan dira: Zaldibia, Zegama, Idiazabal...

Orain Beasainek hartuko du erreleboa, 'Benjaminekin jarduten duten kirol-monitoreentzako' ikastaroarekin (urriaren 19tik aurrera). Hurrena Zaldibian 'Pilota eskola kirolean' ikastaroa (azaroaren 2tik aurrera) izango da. Berriro Beasainen, azaroaren 30etik aurrera, 'Saskibaloia eskola-kirolean' ikastaroarekin emango zaio bukaera aurtengo ikastaro sailari. Ikastaro hauetan parte hartu nahi dutenak Beasaingo Antzizar kiroldegian (943 88 79 00 telefonoa) edo Zaldibian (943 16 03 57 telefonoa) eman behar dute izena.



1977 urteko beasaindarrak

Alkartasuna Lizeoko ikasleak dira honakoak, 8. mailakoak. 1990ean ateratako argazkia da.

Beheko lerroan, ezkerretik eskubira: Nerea Eguren, Larraitx Intxausti (behean eserita), Maider Esnaola eta Naroa Goikoetxea.

2. lerroan: Erlantz Garcia, Leire Lopez, Oihana Salazar eta Pili Lobato.

3. lerroan: Aitz Garaialde, Maider Gorrotxategi, Irune Martinez de Treviño, Oihana Urbina eta Ana Alonso.

4. lerroan: Iñaki Gil, Izaskun Mateos eta Aitor Garmendia.

5. lerroan: Gaizka Olaziregi, Aimar Jauregi, Iker Urteaga, Xabi Loiarte eta Iban Altolagirre.

Goiko lerroan: Iker Remirez, Hasier Agirre, Imanol Imaz eta Iñaki Yabar.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 943 16 06 58



kontsulta eskatu

*Sukaldeak berritu edo muntatu behar baduzu,
prezio ezin hobeak egingo dizugu*



Bakea nahi izatea
ez da nahikoa.
Ekinaren ekinaz
lortu behar dugu.



Joseba Egibar

Juan Jose Ibarretxe
Lehendakariako Hautagaia

Asko da egiteko daukaguna.

Bakea egiteak eta adiskidetzeak elkarriketa eta tolerantzia

esan nahi dute. Eta hitz egitea eta elkar ulertzea dira ditugun

arma bakarrak horretarako. Ideia guztiak lasai eztabaidatzeko garaia da, etorkizuna kontutan izanda,

*denon partehartzearekin bultzatuko dugun **bake-proposamen zehatza eta adiskidetzekoa** eginez.*

Irtenbideren bat badagoela sinesten badugu, aurkituko dugu. Horregatik, botoa emateaz gain zeozer

gehiago behar dugu. Zure ilusioa alegia.



www.ibarretxe.com

Lehenengo atala- Urriak 14-tik 27-ra

handi-ena. eta guztiz zineko prezioan

BERMEA

TDX 7098 TB 28" BLUESKY

- Flat square hodia.
- Nicam estereo soinua
- RMS 2X8 w.
- Teletextoa
- Pantailako erabilpen menua
- Eurokonektagailu bat
- Distantzi mandua

49.900

2.500

*
Hilean
Pzta.



PRYCA PASS TXARTELA. NAHI DEZUN BEZELA ORDAINDU



GOIERRI

